



PRENTSA OHARRA

Vitoria-Gasteiz, 2007ko otsailaren 7a.

EUSKO JAURLARITZAK “FORMALKI ETA OFIZIALKI” DENUNTZIATUKO DU ESPETXE-ARLOKO HITZARMEN MARKOA

Azkarraga: “Jasangaitza da zer nolako utzikieriaz mespretxatzen duen Gobernu Espainolak Gernikako Estatutuan jasotako eskumenak onartzeko eskaera”.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuak gaur iragarri duenez, Eusko Jaurlaritzak espetxe-arloko Hitzarmen Markoa formalki eta ofizialki denuntziatzeko asmoa dauka. Hitzarmena 1994ko apirilaren 18an sinatu zuten Juan Alberto Belloch Justizia ministroak eta José Ramón Recalde Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburuak.

Hitzarmen horrek **sei arlo zehatz ezarri zituen Euskal Administrazioak zenbait zerbitzu emateko EAEn kokatutako espetxeetan**; eta klausula batek ezarritakoaren arabera, adierazi gabe berrituko zen akordioa urtero aldeatariko batek alde aurretik denuntziatu ezean. Behin denuntziatzeko erabakia hartuta, hitzarmena 2007ko apirilaren 18an amaituko da, eta ez da inolako luzapen automatikorik egongo.

Gasteizko Gobernuaren erabakiaren kausa honako hau da: **“Jose Luis Rodriguez Zapateroren gobernuak nagikeria jasangaitzaz mespretxatzen ditu Estatutuan jasotako eskumenak aitortzeko zilegizko eskaerak, eta ez dio erantzuten Eusko Jaurlaritzaren eskaerari, espetxeen eskualdatzea egiteko behar diren batzordeak abian jartzeko eskaerari”.**

Hitzarmenaren amaiera iragarrita, gainera, Osasunaren arloa hartzen duen hitzarmena, beranduago sinatutakoa, ere indarrik gabe geratuko da.

Dena den, Justiziaren titularrak azpimarratu duenez, **Eusko Jaurlaritzak erabaki horrek gaur egun EAEko espetxeetan ematen diren zerbitzuen (hezkuntza, osasuna, informazioa, lanbide-prestakuntza, laguntza soziala eta kartzelatik ateratzeko laguntza-arlokoak) funtzionamenduan eraginik ez izateko “borondate politikoari eusten dio”.** “Euskadiko espetxeetan dauden 1.000tik gora pertsona horiek ez dira Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiaren utzikieriaren **errudun**. Ez da bidezkoa, ezta ere, zaharkitua dagoen eta espetxeratuen gizarteratzearen kontrakoa den espetxe-eredua jasateak dakarkien sufrimendu erantsia —adierazi du Azkarragak—. Hori dela eta, haiek ez dute kalterik nozituko, eta ez zaie ezertan murriztuko Euskal Erakundeen eskutik jasotzen duten arreta.



Azkarragak azpimarratu duenez, **espetxeen gaineko eskumena** EAera transferitzea Eusko Jaurlaritzaren “**eskakizun historikoa da**”; izan ere, lehen elkarrizketak 1983an izan ziren. Jaurlaritzaren Kontseiluak ere, 2001eko otsailaren 12ko Eskaera Zentralean eta Autogobernuari buruzko 2005eko uztailaren 19ko Erakunde Aderazpenean, Estatutuko 12.1 eta 10.4 artikuluetan xedatzen diren eskumenak eskatu zituen. Eta, duela gutxi, iazko irailaren 26an, Transferentzien Batzorde Mistoa deitzeko exijitzea erabaki zuen.

“Eusko Jaurlaritzaren eskaerak Gernikako Estatutuan jasotakoari eusten dio. Alabaina, Estatuaren Gobernuari Batzorde Mistoa batzartzeko eskatu badio ere, ez du inolako erantzun idatzirik jaso”, salatu du Justizia sailburuak; era berean, Zapateroren gobernuaren jarrera “errespetu-falta, lege-urraketa, utzikeria, erantzukizun-falta eta fede txarrekoa” dela esan du. Horrez gain, Transferentzien Batzorde Mistoa batzartzeko deialdia urgentziaz egiteko eskatu du, berriro ere.

Azkarragak eskatu dio Espainiako Gobernuari idatzirik argitzeko zein jarrera daukan, baita ponentzia tekniko batean parte hartuz eskualdatzea egiteko elkarrizketari ekiteko ere. “Rodríguez Zapatero buru duen gobernuak behin-behingo argitu behar du zigorrak betearazteko eta espetxeen kudeaketa transferitzeari buruz legezko elkarrizketari ekiteko prest dagoen ala ez”.

Urtean 4 milioi euro baino gehiago

Azkarraga sailburuak haren agerraldian zehaztu du zenbat diru gastatzen duen Eusko Jaurlaritzak “bera ez den” eskumen batean:

- Justizia 805.000 euro baino gehiagoko aurrekontua du 2007. urterako, espetxeetako gizarte-ekintzarako elkarrekin, Espetxeetako Legezko Laguntzaren Txanda eta Gizarteratzeko Laguntza Zerbitzua diruz laguntzeko.
- Osasun Sailak 1.600.000 euro baino gehiago gastatu zituen 2005. urtean ospitaleratzeetan, kontsulta espezializatuetan, larrialdietan, diagnostiko-probetan, epidemien zaintzan, elikagai eta uren kontrolean eta farmazia-gastuan.
- Hezkuntza Sailak 18 irakasle ditu espetxeetako helduei klaseak emateko. Horrez gain, lehen eta bigarren hezkuntzako irakasleen kostua 676.500 eurokoa da. Halaber, 1999 eta 2002. urteak bitartean 123.000 euro erabili zituen irakaskuntza-materiala erosteko eta 41.000 euroko diru-laguntza eskaini zuen espetxeratutako gazteen arretarako. Horiei erantsi behar zaizkie Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak jartzen dituen beste 55.000 euroak.
- Gizarte Gaietako Sailak, bestalde, toxikomanoei eta preso ohiei laguntzeko programak garatzen ditu. Horretarako 675.000 euroko aurrekontua du 2007. urterako.